

LIBELO BATEN NIRE IRAKURKETAZ

Joxe Azurmendi

OSTIELA!-ren koordinatzaileari:

Ez nian asmoirik ezer komentatzeko. Baina insistitu egiten duk, heuk eman hidan kopia bat: horra, gogorik batere gabe, zerbait. Baina, idazten hasita, pentsatzen ez dudarik ez diat esango.

Ni neu mindu egin nau, egia esateko

Inpresionatu nauela, gustatu zaidala, zer pentsatu ematen duela, gauza oso onak dauzkala, esan ahal izango niake. Testua aski konplexua duk erreakzio ezberdinak probokatzeko.

Baina autoreak aukera bat egin duen bezala euskal errealitate konplexuaren aurrean, nik ere aukera bat egingo diat testuaren aurrean. Labur esateko: desastre hutsa duk. Burla hutsa duk. Ez diat bere moduko hizkera erabiliko. Ez nauk hasiko neurotikoko inpotente baten mendekua dela, etc., etc., esaten. Hobe izango duk denontzat, berak aipatzen duen euskararen "impotencia retórica" praktikatzen eta oso "kontundente" ez izaten piska bat saiatazea. Saiatuko nauk. Baina, egia aitortzeko, berak mila modutan ridikulizatu nahi duen abertzale eta apaiz horixe naizelako bakarrik edukiko diat erruki piska bat, erruki arrastorik ez duen testu harropuz horrek.

Besteentzat halako mesprezu-karga barruan gordezina erakusten duen gixonak, bera zer den gehiegi erakusten dik. Zenbait testuren gainean, bere analisi psikologikoa bat egitea, lehenengo tentazioa izango litzaiteke. Ez nauk hortik abiatuko. Baina aspertuta negok, azterketa sozial-kritiko, kultural edo literarioaren itxuran, Euskal Herriaren astapsikoanalisi-fartsa besterik egiten ez duten zalduntxo "independiente" eta "original", egunotan perretxiku arrunt ugari hauekin, azkenean dena beren buruena bakarrik psikoanalisi gaizki disimulatua- ren ispilua besterik ez eskaintzeko, dotoretasun literario edo akademiko gehiago edo gutxiago apainekin jantzita. (Zergatik nahi dizkiate derrigor publikoan egin beren sesio psikoanalitikoak? Beharbada konturatu bai, eta disimulatu ere nahi izan arren, narzisoak ezin izaten duelako narzisoa ez izan!). Euskal Herri patologiko bat deskubritzen zigutek, eta beren patologien proiektzioa besterik ez dituk izaten Euskal Herriaren -hots, "beste" guztion- gaitz salatuak. Libeloak egiten duen azterketa moduak, sozialki, politikoki, pedagogikoki, edo nolabait gure problemak hobeto konpontze-

ko, ezer ez ziguk argitzen. Deskubritzen digun guztia euskaldunon paranoia eta psikopatologia duk. Hau ere kontu zaharra. Ez diat ukatuko, halere, azken denboran moda bilakatzen ari ote den, irudipena dudala.

Niri mina eman zidak, horra egia. Benetan lanean eta ahaleginean ari den asko eta askorentzat inolako eskerronik ez duelako. Harrokeria eta trufa besterik ez duelako guztientzat. Eta besteak beste, egin beharra dagoen hori bera (eta batzuk egiten saiatzaren direna!) zailagotzen duelako: egiazko kritika bat. Ez duelako ezertxo ere laguntzen ezer positibotarako. Testu horretan nik behazuna eta destaina sentitu dudalako gainezka eta ez besterik. Ez bihotz handitasunik, ez samurtasunik. Nietzschek jenialki analisatu duen "aristokrata sazerdotalaren" testu perfektua duk hori.


Ez azterketa bat eta ez kritika bat da

Ez duk azterketa bat, hasieratik azkeneraino balorazio hutsa baizik. Baina balorazioa ere ez ongaitzak bereziz, neurtuz, estudio bat eginez: dena kondenazio huts-hutsa duk. Kondenaren oinarriak bilatzen dizkiagunean, autorearen gusto (disgusto) eta inpresio absolutuak beste argumenturik ez diagu aurkitzen.

(Ohartxo bat: maite duen gai batez agian bai, idatzi dik autoreak; baina ez maitasunez).

Doi-doi zer kritikatzan da? Dena eta ezer ez. Beharbada izpiritu bat, atmosfera bat, "euskal kulturako" unibertso osoa (erdaraz "k"rekin idazten enpeinatuz: Serafin eta Pio Baroja, Orixe, etab.en ondoren joko infantil samarra bezala bakarrik ikus daitekeena). Baina autorearentzat dena gaizki badago eta dena zirtzila bada, zer ikasi hortik edo zerekin gelditu? Ezerekin ez. Zer ematen, laguntzen, argitzen, aportatzen dik testu horrek positiborik?

Testua nolabait proportzio gabekoa duk. Kontraste ikaragarria zegok, hasteko, alde bateko diskurtso unibertsal, handi, puztuaren eta besteko, diskurtso barroko hori dekoratzea beste eginkizunik ez duten, beraz baliabide literario bezala baino ageri ez diren kasu aipatu bakan eta txikitxo purtzil konkretuen artean. Autorea jeneralidade- tan gaztelutzen duk. Hor sentitzen duk seguru eta harro atakatzeko. Euskal kultura osoaren teoria absolutu baten oinarri empiriko egiztagarri guztia bertso estrofa bat duk (autorearen ustez bertsozularitza "ofizial" guztia zein txarra den erakutsi behar duena); jatorriz erdarazkoa izan behar duen



eta euskarazko original bezala argitaraturik omen dagoen, zein den esaten ez zaigun liburu baten edizioa (zein den esanez gero, agian berak susmarazten -inoiz ez datuz frogatzen- digun arrazoi bano jokabide horren beste esplikazio bat jakin ahal izango bait genikek); Donostiako Zinemaldiko euskararen presentzia bikoiztu autorearen ustez zentzugabea; eta basta, zuzen oroitzen banauk. Beste guztia akusazio orokorrak dituk. Libeloak lupuari baino beldur larriagoa zioz konkretuari.

Euskal kritikarik ez dagoela, kexu izaten gaituk eta kexu duk libeloa bera. Kritika falta, gure problema egiazkoa duk hori zalantza gabe (norbait geratzen al zen ohartzeke?). Baina kritikarik ez egoteko arrazoi bat aspaldian horixe duk nire ustez: honen moduko sasikritiken arrakasta (ez dituk horiek "ez dagoena"). "Inpresionisten" negozio erraza. Eskandalotxoaren afizioa. Kritikaren lekuan deskontentura eta zaputzero ihes egitea. (Deskontentua, haserre, etc., ez dituk kritikak. Ez ditzagun nahastu). Edo bere ekibalente kontrariora, hots, amigismora. Kritika asko balego, egon, ongi etorri libeloak, esango nitek. Baina kritikarik ez badago, eta ez dagoela salatuz badator hain zuzen are kritika gutxiago bera den libeloa, graziarik batere gabeko panfleto txar soiltzat baino ezin har nezakek.

Beste emazte batekin eztabaidan ari zelarik, putaren alabak honela hotsegin omen zioan amari, Oihenartek dakarrenez: "Ama, aitzint zazkio puta deitzera!". Horrela, irainketa seguruari aurre hartuz, berari puta deitu ezinda uzten zian zur eta lur bestea; edo zeharo desbaliatuta uzten zioan bere "arrazoia", halere deitu nahi

Joxe



bazion. Baliabide erretoriko hau bitartean jende ohoretsu askotxoren taktika duk: nazionalistenak ikusten dizkiagu deitzen besteei nazionalistak, irrazional eta biszeralenak besteei irrazionalak, PPko Esperanza Aguirre EHko eskolei fundamentalistak deitzen... Arma gabe uzten haute! Abilezia erretoriko horretan ez duk batere makala, bestela ere literaturan eta erretorikan maina gabea ez denez, libeloa idatzi duen alabatxo bera.

Mesprezuaren topikeria guztien bilduma topikoa

Joxe Marik esan ohi dik, artikulu bat "en este bendito país..." esanez hasten den orduko, "ai, Dios: beste Euskadiko Ezkerrako bat!", pentsatzen duela: autoreak handik aurrera zer esango duen, badakiela dena - irakurleriari goitik behera bizkar gainetik begiratu, guztioi desairez bizia barikatuz, denok baino dena hobeto jakinez.

Euskal Herrian bazegok denok baino kultoagoa, azkarragoa, abilagoa den tribu bat, nahiko misterioitsua, lan egiten den tokietan gutxi ikusten dena. Beren produktu handiak egunen batean ikusiko dizkiagu, oraingoz ikusteko gaudek. Tribu horretako azti eta jefeen ustez -tribu hori aztiz eta jefez osatzen da- herri honetan ez dago gauza zuzenik, ez kontsiderazio edo pietate piska bat merezi duen apurrik. Euskaldunok inkultoak, abertzaleak artaburuak, etc.

Alemanak holakoak dira, frantsesak halakoak, etab., noizpait denok egiten ditugun reduktionismoak eta jeneralizazioak dira. Baina solasean holako bi baitespen segidan egin behar izan orduko, edozein hasten duk bere beharbada ezinbesteko jeneralizazio hauekin dudatzen, edo inko-

modo sentitzen eta matizatu nahi izaten. Edozein, libelo hau izan ezik. Hau sinplismo horietantxe duk potentea ("potentzia erretorikoaz" ari nauk noski). Eta ikusten ari garenez, mesprezuaren eta sinplismoaren ezkontzako haur ederra, Euskal Herriaren ezagutza sakon psikoanalitiko izaten duk tribuan.

Holakoxe euskaldunon definizio eta orakulu biribilen lorategi bat duk hasieratik azkeneraino libeloa (eta politikoki ez dituk tradizio edo kolore gabeak, ikusiko duenez):

- "Los vascos, ya se sabe, tendemos a la rigidez, a la falta de humor y a los planteamientos simplistas". [Libelo honen autorea bera euskaldun mortal jatorra duk inondik ere, ez zebilek euskal arraza sinplistaren prototipo sinplista umoregabekoena izatetik urrut].

- "Una tupida red de relaciones (e intereses) personales hace difícil hablar (dejando aparte a los que no tienen nada que decir porque viven felices en el mejor de los mundos, el vasco, que no son pocos). Aquí, como en la aldea, la crítica sólo se la puede permitir el que..."

- "El cuerpo social vasco, además, está empapado de nacionalismo [ados ote dira analisi soziologiko honekin PSOE, PP, UPN, IU, UA, etc. etc.], y éste, según se sabe, proporciona una garganta elástica o de boa, que permite tragar, como a la serpiente cabras, a nosotros ruedas de molino. Los vascos vivimos de consignas: si nos dicen que nos guste, nos gusta. Nos solemos considerar el colmo de la rebeldía, pero en realidad la heterodoxia nunca ha sido lo nuestro: la rebeldía aquí es siempre en grupo,

bien obedientes a la consigna y sin que nadie se salga de la fila".

- "Para el nacionalista, el euskera, como el agua del Jordán, lo redime todo y es capaz de transustanciar lo que en otro idioma sería a sus propios ojos un bodrio, en obra interesante y merecedora de laud".

- "Por amor a la lengua todo el mundo está dispuesto a aburrirse mucho y además a creer que se divierte".

- "En el País Vasco siempre acaba por dominar en todo el elemento ideológico, controlado, cerebral, obediente (...). El público de la cultura en euskera... ríe y llora, se calla o mete ruido, según le va indicando un cartelito luminoso oculto a la cámara. En nuestro caso, el cartel va incorporado al cerebro en forma de intensa ideologización".

- "Entre nosotros casi todo se vuelve enseguida rito y catecismo".

- "(...) Acuden muchas personas con una personalidad muy característica del País, cierta enfermedad afectiva ambiente, podríamos decir, que por diversas razones, desean comunicarse cuanto menos mejor (...). Si no tuvieran el euskera, otra mordaza encontrarían que ponerse".

- "(...) Podría parecer que son algo asimilable a, digamos, una sociedad de amigos del bonsai; pero no es exactamente eso: se parecen más a un grupo de juramentados decimonónicos, atados por su compromiso mutuo de hablar castellano (generalmente su idioma). El ingreso en la hermandad..."

- "La cosa acaba (cómo no, estando en el País Vasco), en disimulos, comedias y comportamientos vergonzantes".

- "En un mundo dominado por las consignas, con esa desafortada afición que tenemos los vascos a cantar ópera (casi siempre zarzuela)..."

- "Los vascos, gente celebradamente emprendedora, no se resignan nunca" (edozein baldankeria edo txaldankeria egiten jarraitzeko).

- "Casi nada de todo esto (euskaraz publikatzen dena) podría publicarse en un idioma mínimamente sometido a las leyes del mercado: casi nada se publicaría, por ejemplo, en español..."

- "En la aparente regresión a la barbarie que vivimos, parece que los vascos vamos bien situados. No es que nos hayamos movido nosotros de la cola a la cabeza de la tensión histórica; nosotros, lo sabe todo el

mundo, no nos movemos nunca...”

Testuaren edukin nagusia, formalki nahiz materialki, holako aportazioetan zegok. Eta holakoak ez diat uste onuraz eztabaidatzea dagoenik. Gehienez estilo eta erretorika azterketa batzuk egin litezkek, konklusioaren bat ateratzeko (adibidez, idazki osoa josten duten “todo”, “nada”, “siempre”, “nunca”, autore honen estiloaren biziki karakteristiko horiek), estiloa idazlearen arima izaten omen dela gogoratuz. Beraz, ezer gutxi egin zitekeek probetxuzkoa.

Izpiritu kalddar mesprezagarriak bakarrik izaten omen dituk beste-en mesprezatzailleak. Hori egia baldin bada, libelo hau apenas geratuko duk Nafarroako zalduneria ibiltari noblearen historiako eredutzat.

Barne-barnean dagoena: mani-keismo gaintezin bat

Funtzionario poeta euskaltzaletu egin zen. Funtzionario poetak euskal mundua eskisitoa izatea nahi zuen. Euskal mundua ez da eskisitoa. (Nora zetorrela uste zuen?). Berak, eta bera baino ez oso bestelako askok, ez beste inork, egiten dugu euskal mundua. Eta gaudentxoak gaude. Berak, eta hik, eta nik, eta besteek, egiten duguna besterik ez zeukagu eginda. Zein da erruduna? Dena gaizki badago, denok gaituk errudunak.

Euskal mundua gogorra da. Norbere barrutik gogorra, ez kanpotik bakarrik (euskaltzaleen arteko harreman ez errazengatik, etab). Bulgariatearen aurka. Historia zahar baten aurka. Geure ezintasunaren aurka. Hizkuntzaren aurka. Hainbat hasereren aurka, isilik asko, eta pazientziaren beraren aurka. Aukera zail baten bide zaila, euskal mundua. Libeloak puntu batean aski ongi deskribatzen duen moduan, berak erdeinuz egiten badik ere, “a partir de cierto nivel de educación es difícil encontrar a alguien que sinceramente pueda decir que el euskera es su idioma de fondo [gertakaria hori ez da gertakaria hutsa: Estatu moderno batean gertatzen da eta bere kausak ditu - libeloak ezer ez daki horiez!]. No me refiero a quien ha decidido que el euskera es su idioma, a quien ordena al euskera ser su idioma -de estos hay todos los que se quiera- [bai??] sino a aquel en quien, al contrario, es el euskera quien manda, porque rige el curso de su pensamiento. Por lo que he podido ver, la

vivencia sincera y natural, no ideológica, del idioma, casi solamente existe en sectores sociales que apenas hacen ni consumen cultura. De ahí que la cultura vasca sea protagonizada en gran parte por tráfugas de la cultura mayoritaria” (español hitza arduratsuki ebitatzen duk). Izpiritu faltsuen, ez sintzeroen, obra duk euskal kultura.

Euskaraz idazteari eta euskal munduari “bere barru intimoari” ez traizio egiteagatik atxekitzea, beharbada kasu estetikoena eta sinpleena izango duk teorian. Hori ez duk, ordea, kasu legítimo bakarra eta gertakariaren errealitatean ez duk maizenekoa gure artean. (Besteak beste, Estatu moderno baten itomen kulturalaren aurka erreakzionatu ahal izateko, Estatu horrexek itotako bat izan beharra zegoelako!). Ez duk hori Lizardi, Mirande, Aresti, Txillardegi, Saizarbitoriaren kasua, talentutsuenetako batzuk aipatzeko. Ezta Gil Berarena ere. (Beraz, ez niake beste gabe esango “transfuguismo” hau mediokreen salbabidea dela). Bizitzaren aurrean bat era askotan para zitekek, eta espontanioena eta literarioki “jatorrena”, edo autoreak dioen bezala, “sincero y natural” bakarra (merezi du autorearen adjektibo modu hauei jaramon egitea) horixe izango duk apika, ez dakit zein metafisika suposatuz; baina pertsonalki, eta sozial eta historikoki, agian pasiboen ere bai. Gizakiaren aukera duk norbere erabaki librearen, hautapenaren, gainean paratu ahal izatea munduan. Eta gizakiaren aukera duk hautapena ez “bere barru intimo” natural omen horri obeditzuz (gehienez ere ikuspegi literariotik baloratuta “naturala”, eta horrela ere ez asko; alegia, nire ustez dudagarrariro baloratuta: eskolak, haur eta gaztetako irakurketek, etc. egiten duten barru intimo -egiaz bera ere “artificial” asko- horretatik: ez dezagun ahaztu “amagandik” literatur hizkuntza “naturale- ra” doan tarte kasi infinito, “naturaltasunaren” beste mito bat orain egiteko), baizik beste barru intimoago bati edo barru intimo konplexuago batzuei jarraiki egitea. Barrubarruan inor ez gara oso sinpleak. Horrela etortzen gaituk, etortzen garenek, euskal mundura. Borondate asko, jakite gutxi, euskara eskasa. Eta horrela ekartzen ditugun baldintzekin egiten dugun euskal mundua -zergatik ukatuko diagu-, ez duk eskisitoa.

Hori horrelaxe da. Baina ez, hori ez da horrela, ezen-ta guk ez dakigu horrela dela, ez dugulako horrelaxe dela jakin nahi, “por una razón a mi entender fundamental, evidente y casi nunca mencionada por puro miedo a la verdad y pura convención social: la enorme insinceridad lingüística que sub-

yace a toda la cultura vasca”... Horra berriro gure gezurra, egiaren beldurra, etc. Libelista honen eskuetan gorabehera soziolinguistiko sinpleenak ere moralak bilakatzeko zaizkiguk! Eta gure arazo (eta lantu, neuri behintzat askotan aspergarria bihurtzerainoko lantu) guztietan hori baino gauza aitortuagorik ez baitzegok aspaldi, nik ez zekiat benetan non ikusten duen gizon honek insintzeritate, bere begian ez bada. Ez huen izango sintzeritate partikular bategatik, baina soziolinguistikan ezer aipatu izan bada gure artean asko eta gehiegi, euskararen zapalkuntza historikoa, hizkuntzaren marginazioa eta garapen modernorik ezin eduki izana, adaptazio falta egungo premiei, etab., edo ikastolakumeak ez garen guztion arazoak (eskolan etxeko euskara galdu), euskaldunberrienak, etab.; eta literatur kritikan orobat, baserri mundura murriztu izana, etab. izan dituk. “Normalizazioaren” istorio guztiak beste oinarririk ez dik horixe baino. Ukatu ez da inoiz errealitate hori ukatu. Hori bai, gehienetan libelistak baino bestela interpretatu da. Antza libelistak egiten ez dakiena, ordea, gertakari soziala eta bere interpretazio moralista propioa bereztea duk.

Berdin, hirietan sortuak direla aipatzen dik, “unos curiosos clubs o guetos, lo que suele llamarse el «mundo del euskera», cuyo lazo de unión es el ejercer voluntariosamente la vascofonía”. Gero, praktikan, euskara egiteko nekez, erdarara jauzi eginez, atzera itzuliz, ahal duten moduan ibiltzen dituk. (Berak deskribapen mendekatiagoa egiten dik noski). Kasu honetan ere, ez euskaraz bizi ahal izateko horien arazo soziolinguistikoak edo nolana hiko problema objektiboak, jende horren portaera morala interesatzen zaiok soil-soil. Eta kasu honetan ere azkenean, ez horien borondate ona, ahalegina, zailtasuna eta momentu askotako ahultasuna, baizik jende horren gezurra, “disimulos, comedias y comportamientos vergonzantes” besterik ez dik aurkitzen gure gizonak. Analisatu ordez baloratu egiten dik beti. Eta gehiegi baloratzen duenak belarria erakusten du; h. d., erakutsi egiten ditu bere balorazio eskemak eta bere psikosi pertsonalak.

Kasu honetan esan daiteke metafisika bat ere erakusten dela azpi-azpian, naturaltasunaren kontzeptu funtsean teologiko bat (inola ere ez historikoa). Ernazimentuaz gero gizakia bere buruaren egiletzat hartu ohi da. Horrela definitu ohi diagu giza askatasuna. Hemen autoreak atzera Erdi Arora eta Jainkoak egindako kreaturaren “naturaltasun” xume eta egiatiaren errespetu santu-

libeloari

ra itzularazi nahi gintuzke derrigor. Bere "naturaltasun" intimoa euskaraz bizi izan duenak (hautzaroa), agian zilegi dik euskaraz kultur munduan ere jarraitzea (nahiz ez dakidan nola egin ahalgo duen, eskolarik, etab., gabe!); bere naturaltasun intimoa erdaraz bizi izan zuenak, erdaraz jarraitu behar dik kultur munduan ere. (Bestela "transfuga" duk). Barne-barnean hori zegok beti. Hizkuntza intimoa, barru-barruko naturaltasuna, garbitasuna edo dena delako "arima" edo "esentzia" hori transformatu, aldatu nahi izatea ez duk zilegi. Sakrilegioa duk (libelo honetako "natura" sakratuaren aurka). Are, metafisikoki ezinezkoa zirudik. Ez zegok hemen norbere buruaren egiletasunik. Hori pretenitze hutsa gezurraren eta faltsiaren kausa duk, alegia, Luziferren burujope gaiztoa duk hori. (Benetan hau San Migel berbera duk, "ordena eternu" garbiaren ezpata - reketé berri bat ez bada, de la Virgen de Valbanera).


Administrazioa eta funtzionariak hain gustora kritikatzeko dituen testu batean (ez da arraroa eta Mirandek hala egiten zuen, idazmahainari ihes egiteko, funtzionariak bere burua zinezko Liliputen bateko Amadis imaginario batetan besteratzeko), gustatu izango zitzaidan orain arteko hizkuntz politikaren azterketa eta kritika sistematiko benetan zorrotz bat (subentzioak, euskalduntze eta alfabetatze erakundeak, etab.), datuetan zorrotz finkatua. Uste diat behar handia dagoela, zer ari garen garbi jakiteko. Kriterio sozial eta politikoekin egina. Egiaz kriterio soziolinguistikoekin egina, ohiko kriterioak berak eztabaidatzeko ausardiarekin. (*Egunkarian* irakurtzen badut J. J. Ibarretxeren artikulua "Erredakzioan itzulia", Jaurlaritzak egunkariari eman diruen parte bat Ogasun eta Herri Administrazioiko erdarari emantzat kontuak atereaz, adibidez). Herri honetan, izan ere, ikastolari eman dirua euskarari ematen zaio; Unibertsitateari emana ez erdarari. Herri aldizkariari edo *Egunkariari* emana euskarari ematen zaio; *Diario Vasco* eta *Correo*-ri emana ez erdarari. Legebiltzarrak, Gobernuak, etc., ez dute hizkuntza produzitzen: horientzako diruak ez dira erdararen sostengu. (Itzultzaileak berak, euskarari ala erdarari eman diruak dira?) Etab., etab. Gustatuko zitzaidan kritika erradikal bat. Eta, zinez, libeloan erruz kritikatzeko duk administrazioa. Baina aurkitu dudana, nik nahitakoa baino askoz erradikalagoa duk. Hain erradikala ze, politika eta soziolinguistika bezalako axalke-riak utzi eta, administrazioaren barruko moraleraino eta psikologia sakoneraino

baitzihoak berriro zuzen-zuzen. Hasteko administrazioari axola zaion guztia axialgankeria duk -"fe en el envase"-; eta, gainera, "por naturaleza" irudimen gutxikoa duk administrazioa. Handik aurrera administrazioak egiten dakien guztia komeriak eta gezurrak dituk berriro, "camelo funcionario", "pamemas frecuentísimas" "farsas con las que las administraciones vascas pretenden vender a no sé quién el camelo de la vitalidad del euskera", etc. Euskal mundu guztia, irakaskuntzako bereziki, gezur eta farsa berdinak betetzen dik - gehi, diru zikinak: "El «mundo del euskera» cobra por mover la lengua y moverla en ese idioma". Tinglado bat duk dena: "Está montado (...) para una especie de élites subvencionadas que se venden euskera a sí mismas. Lo cual no les impide declararse a troche y moche perseguidas, marginadas, acosadas e incluso acorraladas, por decirlo en términos muy queridos por la paranoia ambiente". Praktika batzuei buruz, eskertuko genioan informazio gehiago, geuk ere entseiatzeko; adibidez nola lortzen den sartzea, berak nonbait hain ongi eta ugari ezagutzen duen sistema euskal administrazioan arrunt zabaldu horretan, "la subsidiación pública y el hecho, gracioso, de que las instituciones compran una buena parte de la edición que previamente han subsidiado". Eta gu enteratu gabe!

Bertsolaritzarekin marka hausten dik, nik uste. Permititzen badidak, Arestiren seta bitxi batez oroitzen nauk. Arestiri Homero ez zitzaioan gustatzen eta niri asko. Baina Arestiren egoak ezin onartu zian zerbait baliotsua izatea eta berari ez gustatzea. "La

aurora de rosáceos dedos", "las playas cóncavas" edo "los barcos de profundos senos" bezalako mozolokeriak ez zela posible pertsona moderno bati gustatu ahal izatea, tematzen huen sutan. Libelistak eskola eta su berekoa zirudik: zerbait baliozkoa izan eta berari ez gustatu, hori ez duk posible. Adibide bat aipatzen dik (estrofa bat) eta bertsolaritza osoa bidaltzen dik zakurraren salara. Ez zaidak axola, bertso baten edo bestearen kritika konkretuan arrazoi duen ala ez. Edonola ere, aipatzen duen bertsoa, ez zekiat beste mundukoa, txarra ez duk nire ustez. Hori goratu duen aztertzailea, zuzen ala oker ariko duk, nazionalista gisa ez duk ari puntu horretan, - baina ikuste horrek ikuslea erakusten dik ("para mostrar con qué arroba unción -autore honen barru "naturala" oso erlijioso duk inondik ere- puede llegar un estudioso nacionalista a hablar de un evidente engendro, cuando el engendro es vasco"), alegia, kritikoak bere fantasmak proiektatzen dizkik berriro. Hitz batean: "rústico iletrado" bati (kontxo! aspaldian entzun gabe nian hizkuntzaje polit hau!) bertsoak gustatu ahal izatea, ez omen zekik eta onar omen zezakek. "Pero cuando veo a gente urbana, culta, letrada, hasta con afición a la literatura, poner los ojos en blanco ante estas ramplonerías en ripio y aún mucho peores, entonces sí me siento capacitado para opinar: esta gente miente. Se miente fundamentalmente a sí misma y luego a los

erantzunez



demás. Aquello, no digo que no, será si se quiere un ritual nacionalista, un acto de comunión ideológica [ora pro nobis!], una ceremonia de hermanamiento; será todo lo que se quiera y tendrá mil justificaciones y me parece muy bien, pero el goce, el disfrute básico, fisiológico, directo, sincero [berriro], no existe, es una pantomima". Bertsozaleak ere komediante eta gezurti hutsak...

Ehun urte honetako topiko guzti-guztien antologia honetan ezin falta zitezkean alusio klerikalak. (Zuek, kultura unibertsaleko irakurle kultuok, eguneroko zuen irakurketa kultoetan frantsesez, ingelesez, alemanez, askotan aurkitzen al duzue jenero hau?)

Oso espainoltzia izan behar da benetan oraindik haize horiek erabiltzeko). Euskal bertsoari eta jota nafarraren antolaketetan "pululana", non-bait, "curas, en activo o en excedencia". (Ederren eta itsusien kontuan baino gehiago eskertuko genioan hemen estatistika piska bat, baina horrek igoal azterketaren usaina emango liokek, eta lan guztian zehar autoreak osoki lortzen dik irakurlearen holako edozein susmo ebitatzea). Bertso afariek eta txiste afariek eta lehen aipatu solas klubek ere "gente de determinado corte mental" biltzen bide diate: "notoriamente a muchos curas, semicuras o ex-curas, que siempre han constituido el corazón de la vascofonía «culta»; estos, en efecto, en su opción vital han renunciado al goce del mundo para dedicarse a tiempo completo a su menester soteriológico (salvar almas, salvar el euskera...); no les puede pues importar demasiado en qué idioma bandear una insuficiencia afectiva que de todas formas estaba en el programa". (Zer ote da maite ez dituen denak psikoanalizatzeke eta moralki larrutzeke obsesio hau? Haien intimitatean eta afektibitatean, sintzeritatean, beti inoren barru-barruan sudurra sartzeko gure mutilaren irrits patologiko eustezin hau?).

Izan nian astia, nik uste, apaizak nahikoa ezagutzeko hurbil-hurbildik. Gehienak laguntzaileak izaten hituen. Besteren batzuk, salbatzaileak (eri eta oinazetuei eta pobreei kontsolamendua ematen zietenak). Eta batzuk, kondentzaileak. Hasteko, beren kolega laguntzaileak eta salbatzaileak kondentzen zituztenak, aski estuak eta kondentzaileak ez zirelako. Eta jarraian mundu guztiarenak kondentzaileak, asmo sekretuenen ispiak, jende gaixoaren arima-barru barrueneko intentzio gaizto egiazko edo imaginatu guztien barrandatazaileak,

edozein bazterretan beti susmatzen zuten ferbore gutxiegiaren edo ahultasun gehiegiaren azote kupidagabeak.

Zer nahi duk esatea? Francoz gero Euskal Herrian idatzi den testurik "apeztia-rrena" sentido txarrean libelo hau duk, nik ezagutzen dudala. (Hori hobeto erakusten eta, autorearen gisara, testua holako izpirituen adjektibo psikoanalitiko ugari eta "kontundente" oso fin bezain oso astakoz nik ere janzten, gehiago luza nindekean, Nietzscheren esku argigarriaz: baina erruki apur bat -eta nolabaiteko pudorea- niri oraindik hondar bat gelditzen zaidan zerbaite duk).

Libelo honentzat historiaren funtsa eta esentzia moralina hutsa duk. Autorea ehundik ehun "apaiza" duk, Nietzscheren adieran. Erresumindu nihilista heste-idorra. Guztiaren atzean beti jendearen interes zikinak, hipokrisia, gezurra ikusten dik: bekatua. (Eta bekatu modu espezifiko bat: hemengo bekatua "antiapaiza" duk - ausardia, borroka, eraldatu nahia, erresistentzia). Deabru bat ere bazegok paradisuaren galera eta gero bekatu guztiak esplikatzeke: ideologia (nazionalismoa).

Azken finean, zergatik kondentzen du libelistak euskal kulturagintza oso-oso? (Nik ere piska bat sinplifikatu egingo dut). Ez dugulako jakin indio erreserba batean geratu eta, mendi gaineko kultura rustikotik poesia sublime bat, literatura exotiko paregabe bat, etc., egiten, merkaturuan ere gailentzeko gauza izango zena eta euskara salbatuko zuena.

Edo bere hitzetan esanda (berak formulazio negatiboa bakarrik erabiltzen du): gure kultura, espainola bezalako egin nahi izan dugulako; dirua eskatu dugulako "normalizazio" horretarako, eta diruak dena zikintzen duelako; normalizazio sozialaren aitzakiaz literarioki autore eskasak publikatzen direlako; sariak antolatzen direlako, eta mediokre batzuek irabazi: eta horiek saritu egiten direlako, zigortu ordez, etc. Libeloak ez du onartzen euskararentzat mundu "normal" bat bere miseriekin. Agian linbo gozo bat nahi du harentzat. Baina hori ere eztabaida litekeena da, eztabaidatu nahi bada. Libeloak horretarako ere ez du bide ematen.

Libeloa ona izan zitekean, ez libeloaz beraz, baizik euskal kulturaren egoeraz benetan eztabaida bat probokatu balu. Batzuk eta besteak zirikatuz agian lortuko

duk jendeak libeloaren inguruan hitzegitea eta saltsa piska bat sortzea, prentsa bixitze-ko. Baina ez duk benetan kultura eztabaidatzeko izango, libeloa bera baino. Libeloak ez dik beste ezertarako ematen. Ez dik funtsik. Tximeleta baten gerra komedia duk. (Beharbada horregatik ikusten dik eta gorrotatzen dik hainbeste komedia: autogorrotz). Libelo hau bere txarkerietan ere superfiziala duk. Dudagarria duk, neuretzat, libelarik ba ote den ere. Trufa guztiak libelistaren ez askatasun, ez alaitasunetik eta ez lotsagabekeriatik zeudek egiaz bertso-tuta. Funtzionariotxo baten arima apaiz-apaiz kaxkarretik zegok idatzita dena, sarrera luzeko "inmunizazio estrategia" errukarriak jada erakusten duenez. "Un ejercicio de subjetividad", "impresiones personales, experiencias, casi dirfa sentimientos"... Baina gero norbait ados ez badago, baezpadan aurretik defentsa: ezaguna da "la espesa capa de prejuicios que protege de los hechos [¿qué hechos?] a un cerebro ideologizado". "Los picios del concurso no estarán de acuerdo con mi diagnóstico". Alegia, nire diagnostikoarekin ados ez daudenak, Picioak denak. Nik neuk behintzat, mila aldiz nahiago Picio, libelistarekin guapo baino.

Funtzionario anarkistaren egun tristeak

Autoreaz ez nekian tutik heuk emanda libeloa irakurri nuenean (oraindik anonimoa huen): "hona hemen arima anarkistako beste funtzionario bat!", pentsatu nian lehenengo momentuan. Diskurtsoek (edo "narrazioek") beren lekuak edukitzen zituzte historian, askotan egilearen intentzioarekin zerikusirik batere gabe. Eta libelo honek badik diskurtsoen historian bere kokaleku propioa: euskal mito ugarien apurtzaile ugarien historia luzea luzatzen dik. Euskal kulturaren mitoa desmitifikatzen da oraingoan. Begira estiloa bera eta baliabideak: "(...) Espero que cuando la postrer guadaña me cercene el sustentáculo de la boina, también yo reciba una pequeña concesión en el Walhala, una parcelita con buena orientación en las praderas de Aitor, donde los vascos bailan por fin la mutiladanza eterna, al son de inextinguibles txalapartas..." Hori musika pertsonala eta originala bada, Ravelen boleroa edozeinen kreaio originala da egunoro.

(Parentesi artean, galderatxo bat: topikeria erdal-basko guzti horretatik zenbat irakurri du inork ere euskaraz inoiz? Zergatik ez gaituzte basko-erdaldun horiek, beraiek asmatu dituzten mitoen desmitologizatze eternoaren ipuinekin euskaldunok behingoz bakean uzten?).

"Iritzi pertsonal bat da, esan hidan orduan: ez dago ados egon beharrik, baina elkarrizketarako interesantea izan liteke". Ez, ez duk iritzi pertsonal bat: horixe duk kontua. Eta ez diat uste elkarrizketarako interesantea denik ere. Klasikoa duk, aspaldikoa duk, historiko eta topikoa duk funtsean; axial-axalean adibide paretxo bat orain-gogoa aparte, diskurtsoa bera zaharra eta prehistorikoa duk. Oraintxe bertan ere arrunt ezinagoa duk diskurtso tipo hori Madrilgo nahiz hemengo egunkari handien guztietan. (J. M. Torrealdaiak historia zahar horren parte bat aurki publikatuko dik "El libro negro del euskera" izenburuaz. Eta aitortzen diat, historia hori neure bizitzan nahikoa bizi izanak beharbada hipersentsible bihurtzen nauela).

Nahikoa ezagutu baitizkiagu holakoak, praktikan euskal gauzak gorrotatzen zituztenen tesi berdinak defendatzera iristen ziren euskal gauzen maita-maitaleak. (Libelistak euskal mundua maite duen ala gorroto duen, ez zaidak axola: alegia, ez diat haren barruan sartu nahi. Bazirudik libeloan bertan iturri bien moduak bateratzen direla: batzuen tonua eta besteen ikuspegiak). Utz ditzagun ofizioko gorrotatzai-leak, nahikoa ezagutu ditugunak - maisuak, kulturako funtzionariak, erregimenaren propagandistak, apaizak. Euskal kultura "beneragarriaren" gisa honetako "maitaleak" ezagutu dizkiagu funtzionario falangistak ere! Euskal kultura maite, oso maite zutenak, baina mundutik kanpoko errealitate bat bezala. Birjinala, orban gabea. Artxibokoa. Bizitzak "zikindu" gabekoa. Oi, moderniak oraindik kutsatu ez duen euskaldun jende jator hori baserrian, hirietatik urruti! Amatearen euskara natural hori! Euskara den altxor historikoa! Eta zer kalamitate beste euskaldun kaletar euskara modernotu eta lardastu-nahi horiek, euskara politikarekin nahastuz, dirua exigituz, kultura espainolarekin konpetituz, nano menditar alenak...

Oi, funtzionario poetak! Alde batetik beren bizitza eta bestetik beren ideiak, edo ametsak, izaten dituztenak - bihotza alde batean eta kartera bestean edukitzen ditugun bezala. Gogoratuko haiz: Don Julio Caro Barojak ez zian euskara baturik, ez ikastolarik eta ez beste ezer nahi. Alegia, egiten zenik ezer ez. Ez egitea onena. Euskalkiak eta etxeko euskara goxo-goxoa, eta kito. Beste dena artifiziala eta faltsua huen, filologo txar batzuek asmatu-rikosasi-dialekto bat, etab. Eta "orain arte bizi izan bada, hemendik aurrera ere biziko da" zientifiko batekin patxadan geratzen huen gizona.

Libeloan normalizazioa dago auzitan - proiektu guztia eta bere kapitulu guztiak. Izan ere, euskal kultura behi bat omen zen, ez zaldi harro handinahi bat! "Y si antes era un animal amable y simpático en su modestia, ahora producen cierta repulsión sus pavoneos y su engreimiento, y, sobre todo, su mentira: el hecho de que una parte muy grande no corresponde a nada (...). El mundo de las letras vascas sufre de una rara hidropesía, probablemente terminal, fruto directo en mi opinión de partir, más que de sus necesidades y posibilidades, de un impulso administrativo-oficial de imitación, de esta especie de furia copiona que nos ha entrado". Don Julioren kopia. Alegia, Don Juliok jada (Unamuno, Baroja, etc.) kopiatu dioenaren kopiaren kopiatzaile eta kopiatzaile ugariren kopia.

Piska bat harritzen nauena duk, filosofia aski kontrarioetatik etorri arren, zenbat kointziditzen duen azkenean hauen "euskal munduak", beti ridikulizatu dugun Txomin Agirre eta haien Euskal Herri "bukoliko, erromantiko" harenganako errespetu santuan. Eta nik beti galdetu dudana: "oso ongi, baserri txuriak, etab., hori dena oso ederra da, eta zer egiten dugu orain horrek-kin, kontenplatu eta maitte-maitte laztandu besterik? Euskara, antzina-antzinako perla paregabea: eta nola bizi horrekin eskolan, kalean, lanbide moderno arrunt batean, baserrietik kanpo? Baserrian bertan ere jagoitiki? Zerbait egin beharra baitago, laster hilgo ez bada.

XX. mendearen hasieratik -hobeto esan: libelistak gorroto duen nazionalismoaren hasieratik: askoz politagoa izango huen euskararen alde liberalak, sozialistak, anarkistak eta bestelako txori ez nazionalistak, ahalegindu izan balira; baina, zer nahi duk, historia egin den bezalakoxea duk tamalez gure etxean!- euskara zahar hori mundu modernoan bizitzeko gai izatera egokitze-aren, egin dituk eta, batez ere gaur, egiten dituk ahaleginen batzuk, ez zekiat asko ala gutxi. Libeloarentzat oso garbi zegok: gehiegi eta denak gaizki. Horrela sortu den kultura guztia "zaborra" duk; okerrago, txarra eta harroputza, "basura con ínfulas". Libeloaren oso pertsonala bihurtzen da, izenik esan gabe ere. Askotan ematen dik, kulturaz mintzo dela, baina buruan nor batzuk, ez zer batzuk, dauzkala autoreak, eta nor haiekin ankertzen ari dela. Euskal kulturako jende horren postura psikologikoak, jarrerak, "interesak" (ilegítimoak?), behin eta berriro aipatzen eta garratz epaitzen dira, h. d., euskaltzale horien hipokrisia, diruzaleatasuna, funtsean inmoraltasuna! Suposa dezagun, ez dela bekaizkeriaz ari. (Orain bazekiat autorea bera funtzionario bat



omen dela eta kobratu egiten omen duela euskara erabiltzea - bere fraseren bategatik beste batzuei buruz sekula pentsatuko ez nuena, egia aitortzeko). Eman dezagun, euskal kulturaren badaudela haizeputzak, diren baino handiago ustekoak, merezi gabe sarituak, etab. Eta zer? (Autore batek bere burua sandios dela, uste badu, eta oso txarra bada - ez baitiat ukatuko ikusten denik holarik-, molestaturiko zidak edo ez, baina hori bere problema dela pentsatuko niake nik, ez euskal kulturarena: ez zioke egiten kalterik nik dakidala Euskal Herriari, ez nire zorientxoari, eta ez zeukat nik harenari zergatik kalte egin). Beraz, libelista hau ez ote diagu izango misiolari edo inkisitore kamuflatu bat - eta adiera horretan kultur kritikoa, Savonarola, Rousseau eta beste hainbeste eta hainbeste lehenago bezalaxe? Eta orain euskal kulturari egiten zaion kritikaren tonu hori (benetan "apokaliptikoa", munduaren akaberaren profetia batekin ez, baina euskararen heriotza geuk kausatuaren susmoarekin), ez ote da Signoria aberatsaren edo Pariseko Gortearen kultur produktu berrien uholdeari orohar, jende xumearen izpiritu zintzo eta garbia lorrinzen omen zutenari, behiala egindako kritiken tonu berbera? Nik hala irakurri diat. Hemen profeta kiskaldu bat mintzo duk. Orain dirua dago (diru gaizto hori!). Eta euskaldun jatorra den jende xumeari dagokion moduko kultura xumea egin orde, euskalduna ez den maila bateko kultura "gora" nahi da artifizialki produzitu; eta -ez baitago jenderik horretarako, estudio guztian estatistika bakarra hemen zegok: "en la raza humana la proporción es de un guapo por 20 feos"-

kultura txarra egiten da. "Hay que tener dinero, claro, pero nosotros [¿nosotros?!], gracias al imperio político del nacionalismo, lo tenemos". Eta nola euskal kulturak orain dirua barra-barra duen (?!), handinahikeriak jo dik buruan. Eta: "todo esto ha producido un boom de cargos, funcionarios, figuras culturales, casillas, rincones, covachuelas, sueldos, prebendas y subsidios, y como en todo caso de escandalosa inflación, el resultado inevitable ha sido la devaluación: circula mucho papel, pero no vale gran cosa". "El resultado está a la vista: junto a algunos guapos, ha subido al estrado todo el mundo: los normales, los feos y hasta auténticos picios. Pero eso sí: hemos conseguido con ímprobo esfuerzo y mucho dinero (público), que la organización, el estrado, los focos, las bandas, los horrendos numeritos de los candidatos y sobre todo los premios en metálico, que es lo importante, sean homologables, europeos, iguales que los de los demás"...

ad libitum...

Ez diat esan nahi, euskara batu, modernizatu, standarizatu beharrean daramagun prozesu zurrunbilotsu guzti hau -funtzionario esteta sakonki disgustatzen duen mila fenomeno mingarri toleratu beharrean!- problemarik gabekoa dela. Bakarrik, ezagutzen al duk euskaldun bat bakarra, etxetik euskalduna (beraz, bere "ama hizkuntza" lardaskatu diotena, euskaraz idazten eta hitzegiten urtero "berrikasi" behar izaten duena, Euskaltzaindiak edo hiztegi berri batek gauzak beti aldatzen ibiltzea baino lan handiagorik asmatzen ez duten artean), euskara kultur tresna bihurtzeko ahalegin guzti hauek problemarik gabeko entseguak direla uste duenik? Beldur ez denik? Kezkatzen ez denik? Eta saiatzen bada ere jendartean gortesia ez galtzen, gure produktuen kategoria norainokoa den ongi samar ohartua ez dagoenik?

Denok zekiagu etaitsuak ikusten dik, instituzioek, batez ere politikoez, euskara beren obligazioetan hartzeak problemak ekarri behar dituela. Bakarrik, ez hartzeak ekarri dituen problemak, ikusiegitxoak zeuzkagu aspaldian. Zer drama edo komekia egin behar da horregatik orain, akatsak omen daudelako? Kritika egizak, saia hadi hobetzen! Baina zikindu hadi! Entseiatu gabe ez zegok geratzerik. Errazena funtzionarioak errukigabe larrutzea duk - egiazko problema gehienez ere politiko gobernarriengan dagoenean! (Libelo honek kostu gabeko "ausardia" batzuen ondoan bazeuzkak "zuhurtasun" harrigarri batzuk, eta kargu politikoenganako zuhurtasun hori duk bat: funtzionarioak ez bezala, politiko-

ak ez dira jipoitzen; eta politika jipoitu nahidenean, "nazionalismoa" da!).

Libeloak aipatu aipatzen dituen problemak, ez dituk ez daudenak; baina jeneralean ez dituk, denok ikusita ez dauzkagunak ere. Diferentzia ez zegok problemak ikustean eta aitortzean (axanpaka ibili beharrik gabe horregatik), egiten den irakurkeran zegok. Egunkaria, ETB, euskaldun poetak, nobelistak, itzultzaileak, irakasleak, ikertzaileak, Unibertsitatea (susmoa diat, "euskal kultura" ez al den literaturara soil murriztu nahi!), onar genezakek ez garelake beste mundukoak. Gaudenok gaudek -eta beleaz neke da aztore egitea-, gaudenok egin behar dugu lana. (Kultur mundu espainola ere -Unibertsitatea, etc.-, telebista espainola ikusten duenarentzat eta besterik ezagutu ez duenarentzat bakarrik duk mirabiliazkoa). Baina nik, nondik gatozen eta nora goazen, begiratzen diat; eta, miseria artean, askatasunaren historia gizadiak joputza eta zapalkuntza artean dakarren bezala beti aitzinarazten, historia pozgarri oso positibo bat ikusi uste diat orohar, bere problemekin ere, euskararen normalizazio prozesu linguistikoa, literario, kultural, sozialean. Funtsean hortxe zegok nire ustez diferentzia. Garbi agerturik ez zegok libeloak historia hori zein animotatik pertzibitzen duen, baina nahikoa islatzen dik beldur -ez itxaropen- batzuetatik eginga dela batez ere. Beldur duk euskaldun jatorren mundua, naturaltasunez euskaraz bizi dena, axolagabe eta are arrotz dagoela ahalegin normalizatzaile horri buruz. Beldur duk, haizealdi kulturizatzaile itxuragabe horiekin, ebitatu ez, baina azkartu egingo dela gure hizkuntzaren heriotza: esaldiren baten arabera iragaitzean, egoera "terminalera" ekarria izango genikek euskara. (Libeloa, orduan, angustiazko protesta desesperatu bat bezala ulertu ahal izango litzatekeek)... Baina bestetik autorea beldur duk nonbait, gaztelania guztiz ahantzia izan genezakeela noizpait; euskal kultura autonomo eta aski bat egon litekeela egunen batean bazterrotan; haurrak euskal kulturaren bakarrik -alegia, kultura espainolaren osagarri egiaz kultoa gabe!- heziak izan litezkeela. Eta espainola gabe ez zegok kulturarik. Alegia, A dago, egiazko kulturarik ez dena: euskara; eta B dago, egiazko kultura: espainola. (Eta horrek oraintxe egiazko errealitate moduren bat edukitzeak, inolako bariablerik onartu ezin-go balu bezala, ez orain, ez gero -errebindikazio batzuen erretorika "kontudentean" ere ez, ezta utopian ere- hemengo hezkuntza sisteman eta gizartean). "La cultura vasca es mala. Incluso muy mala. Salvo excepciones, es una cultura pueblerina y sin interés, que no puede bastar para la forma-

ción de nadie. Esto, en sí mismo, no constituye ninguna crítica: por diversas razones es lógico y previsible que sea así. Lo que no es tan normal y sí merece crítica, es intentar presentarla, como se hace constantemente, como un equivalente o incluso posible sustituto de la cultura mayoritaria del país, con vocación de ser algún día su cultura única; esto en mi opinión es peligroso e irresponsable, sobre todo teniendo en cuenta que las víctimas de la «homologación» van a ser los jóvenes. El día en que estos dejen de educarse en culturas «extranjeras», por seguir usando jerga paranoica, y las sustituyan por la «propia» (y esto, no me cabe duda, es lo que muchos pretenden e incluso ya van consiguiendo), habremos dado un gran paso en el descerebramiento del país, cosa que no puede sino preocupar a alguien con un poco de conciencia".

*Testuak ez dik sekula bere
baieztapen biribilen oinarriko
analisirik eta ez frogarik ematen.
Hori gabe, neure buruari galdetu
beharra zeukat, zein hilargitan ote
dabilen bere hanka biekin gizon
hori, eta han ere buruz behera.*

Bestela ez beldur hori eta ez ziurtapen horiek, amesgaiztoetako bere fantasma hutsak bezala baizik uler nitzakek. Ni bizi naizen herrian -Aturri eta Ebro arteko herri batean -oraindik ez diat inor aurkitu, kultura "arrotzak" ez ezagutzea meritutzat zeukanik beretzat edo bere umeentzat. Batzuk bai, hori egia, Holandaren edo Finlandiaren antzeko herri batean amets egiten dutenak - dena dela, beharbada oraingoz inor beldurtu beharrik gabeko hemendik ehun urte batzuetarako hori ere. Holanda, ezaguna denez, sozialki herri elebakar homogeneous duk (frisiarak utzita); baina kulturalki bizpahiru hizkuntza erabiltzeko trebe ez zen holandesik ez diat ezagutu.

Nire Euskal Herriaren kontzeptuan, ereduak bilatzen hasita, nahiago diat Holandaren antzeko bat imaginatu, eskolak berak jada -eta libeloak- diglosia eternalera kondenatzen duen Euskal Herri batena baino. Kultura "arrotzak" oso ongi ezagutzen dituen -auzoenak, adibidez-, "berean" minusbalidua izan gabe.

"Normaltasun" hori nahi dudalako, nahiago izango nian libelo hauxe euskaraz egon balitz. "Orduan ez hion erantzungo!" Ez, ez nioan erantzungo. Normaltasunaren seinale irudituko zitzaidan, eta agian poztu ere egingo ninduan.